





UPN-K EZ DU IKUSI NAHI HEMEN DAGOENA



Nafarroako Behe Erriberan euskararen irakaskuntzak lau hanka ditu: Argia Ikastola 230 ikaslerekin, A eredu (euskara ikasgai duela) ikastetxe publikoetan 910 ikaslerekin, AEK 60 ikaslerekin eta Hizkuntza Eskola 28rekin. Daniel López Moreno euskaltzaleak argi du A eredu bultzatu behar dela eskualde honetan, hori izan daitekeelako euskararentzako sarbide eraginkorra.

 REYES ILINTXETA

 DANI BLANCO

Haur garaian izan al zenuen harremanik euskararekin?

Ez. Ni, familia osoa bezala, zeharo erdal-duna nintzen. Amona bat Salamancakoa genuen. Txikitari ez nuen euskararen batureraz aztarnarik antzeman herrian. Gerra ondokoak oso urte pobreak izan ziren. Ablitasen kaleak oraindik lurrezkoak ziren eta kaleko argirik ez zegoen, adibidez. Gure aita hango medikua zen eta 8 urterekin barneko ikasle bidali ninduen Tuterara, jesuiten ikastetxe batera. 16 urterekin Xabierrean joan nintzen. Gogoratzen dut han kanta txapelketa batean talde batek abesti bat egin zuela euskaraz eta hori da garai hartako nire oroitzapen bakarra euskararekin lotua.

Eta nola hasi zinen ikasten?

Jesuitekin ikasten jarraitu eta Azpeitiko Loiolara joan nintzen nobizio-aldia egitera. Kanpokoarekin harreman gutxi bagenuen ere, herritarrentzako mezak eta otoitz-aldiak egiten genituen, eta hori izan nuen lehen harreman zuzena euskararekin.

Gero Bilbora joan nintzen. Han ikusi nuen jesuita batzuek bere burua eskaintzen zutela Afrikara edo Venezuelara joateko. Toki horietako hizkuntzak ikasi eta hango kulturetan murgiltzen ziren. Taldetxo batek pentsatu genuen, hemen, Euskal Herrian, antzeko zerbait egin genezakeela, bertako hizkuntza eta kultura landuz. Talde horretan zeuden, adibidez,

gaur egun euskaltzaina den Patxi Goena eta Alejandro Aldanondo, egun Afrikan jesuita dena.

Zazpi jesuitagaik etxebizitza batera joan eta euskara ikastea erabaki genuen. Probintziako arduradunari eskaera egin genion eta berak Roman Garate jarri zigun arduradun, oso gizon jatorra. Etika irakaslea zen unibertsitatean eta giza eskubideei eta marxismoari buruzko euskarazko liburu batzuen egilea zen. Santutxun bizi ginen. Hasieratik meza egiten genuen egunero euskaraz, baina hori aski ez eta berehala dena euskaraz egitea erabaki genuen. Nik oso suerte ona izan nuen, Patxi Altuna izan nuelako euskara irakasle.

Daniel López Moreno

1948, ABLITAS



Irakasle erretiratua, Tuterako Beterri peñako kidea, Geroa Baiko militantea eta euskaltzale sutsua. Bere hiru semeek Argia Ikastolan ikasi dute. Azken zortzi urteotan Tuterako Olentzero izan da. Hori aski ez eta inguruko herri eta ikastetxeetan ikazkinarena egiten du pozarren.

Gure artean oso harreman polita genuen. Askotan joaten ginen mendira eta Laboa eta Lertxundiren kantak egiten genituen. Kanpoko jende euskaltzalearekin ere harremana lantzen genuen. Horrela, esate baterako, euskara irakatsi genien neska batzuei. Haiek maistra titulua atera zuten eta gero haien senargaiek ere bai. Zarauzko ikastolako irakasle izatera iritsi ziren horietako batzuk. Bestalde, Santutxun bazen ikastola bat eta gutako bik, Patxi Goenagak eta Josema Añonek, han laguntzen zuten. Tasio Erkizia lesakarra zebilen garai hartan irakasle ikastola horretan.

Batzuek gaizki hartuko zuten apai-zak halako mugimenduetan ibiltzea, ezta?

Tentsio handiko urteak izan ziren. Langileen mobilizazio ugari eta garrantzitsuak izan ziren garai hartan eta jesuita batzuk oso konprometituta zeuden 'Misión obrera' atalaren bidez. Barakaldo, Errenteria, Iruñea eta Tuterako mugimenduetan, besteak beste, hartzen zuten parte.

Zergatik ez zinen apaiztu?

Ni gustura nengoen oso jende jatorra zelako eta Bilboko jesuitetan hiru urtez eskolak ematera iritsi nintzen. Hala ere, argi nuen ez nuela apaiza izan nahi. Kosta zitzaidan, baina azkenean 30 urterekin utzi nuen.

Nafarroara etorri zinen orduan?

Bai. Ordurako nire gurasoak Tuterara etorriak ziren bizitzera, baina nik ez nuen haiekin joan nahi eta Nafarroako Diputaziora jo nuen laguntza eske. Han, Xole Erbiti anderre euskalduna eta jatorra ezagutu nuen, Euskara Departamentuko arduraduna, eta berak esan zidan Lizarra Ikastolan pertsona bat behar zutela. Hara joan nintzen, Feliciano Pinillos ikastolako bultzatzaile nagusietako batengana eta José Luis Gorostidi zuzendariarengana, eta segituan onartu ninduten. Zazpi urtez aritu nintzen han. Lan handia egin genuen familiekin batera. Horiek bai, zubia egin zuten errepublika garaian zegoen mugimendu euskaltzalea eta egungo garaia lotzeko. Han jende zoragarria

ari da lan sakona eta isila egiten, Oier Sanjurjo futbol jokalaria gurasoak, esate baterako.

Zergatik utzi zenuen Lizarra eta Tuterara etorri?

Tuterako neska batekin ezkondu nintzelako. Lehen urtean, joan eta etorrian nenbilen, baina ez zen bizimodu erraza eta lan bila hasi nintzen Tuteran aldean. Esan zidaten ingeles irakaslea behar zutela hango ikastetxe batean. Ez nekien ingeles asko, baina hala ere hartu ninduten. Euskara ikasterakoan Patxi Altunari ikasitako teknikak baliatu nituen ikasleei ingeleza irakasteko. Lanbide Heziketarako zentro publiko batean, ETI izenekoan, aritu nintzen. Lehen urtea bete ondoren, gaztelaniaz irakasten hasi nintzen. Gerora hainbat herritako ikastetxe publikotan aritu izan naiz lanean: San Adrian, Cortes eta berriz Tuteran, Benjamin de Tudela Institutuan.

Noiztik zara Tuterako Olentzeroa?

Iazkoa nire zortzigarren urtea izan zen. Eguberrietan hogeitatu bat Olentzero egin ditut herri eta eskolatan.

Noiztik ospatzen da festa hau Tuteran?

Duela 46 urte La Teba peña hasi zen segizioa antolatzen. 1965ean Iruñeko Olentzeroren Lagunak taldeko batzuk etorri ziren galdezka ea hemen zer peña edo elkarte egon zitekeen prest hau antolatzeko. La Teba zen orduan halako ekitaldi bat antolatzeko gai zen elkarte bakarra eta nahiz eta oso espainiarrak izan, proposamena onartu zuten. Baina giroa ez zen oso lasaia.

La Tebakoak ez zeuden eroso, berehala hasi zirelako ikurrinak eta beste ikur batzuk ateratzen segizioan. Beterri peñak hartu zuen haien lekukoa. Beterrik ekimena handitu eta zabaldu du. Olentzeroa oso errotuta dago eta oso maitatua da Tuteran. Jende pila etortzen da joaldunak, gaita jotzailak eta animaliak ikustera.

Geroztik beste herri batzuetara ere zabaldu da tradizioa: Cintruenigo, Corrella, Ribaforada, Cascante, Ablitas... Aurten, lehenengo aldiz, Buñuelen egin dugu. Kaleko Olentzeroez gain ikastetxe askotxotan ere egiten da festa.

Guraso batzuek ez dituzte haurrak eramaten A eredura G eredura baizik, baina euskarako klase partikularrik ematen dizkiete



Jendeak nola hartzen du?

Jendea ez da ergela. Guk ezer esan gabe, askok Olentzeroren alde egiten dute esanez, adibidez, Aita Noel urrutiaготik datorrela, edo Olentzero ez datorrela Azpeititik edo Zarautzik, Lesakatik baizik eta Lesaka Nafarroa dela.

Errege Magoen urre eta argien aurrean, Olentzerorena animalien jai da, jatorra, xumea eta hurbila. Jendeari asko gustatzen zaio. Animaliak Leitziatik ekartzen ditugu eta horrek erruz erakartzen ditu ikusleak. Goxokiak ere botatzen ditugu.

Jende asko dago Olentzero ongi ahoskatzen ere ez dakiena, baina ikustera gustura etortzen dira. Azken urte hauetan ohitura zabaltzen doa, poliki-poliki bada ere.

Nik hori dena A ereduarekin lotzen dut. Ia mila haur eta gaztetxo ari dira Erriberan euskara ikasgai bezala ikasten, eta gutxi izanik ere, aurrerapauso handia da hemen.

Zer garrantzi du A ereduak Nafarroako Erriberan?

Izugarría. Euskarak gaur egun lau hanka ditu Behe Erriberan: Ar-

gia Ikastola, A eredu, AEK eta Hizkuntza Eskola. Ikasturte honetako datu zehatzak bildu nituen txosten bat prestatzeko eta horren arabera A ereduan 910 haur eta gaztetxo ari dira ikasten. Ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako datuak hauek dira: Ablitasen 70 ikasle, Cabanillasen 20, Cascanten 69, Castejonon 42, Cintruenigon 123, Corellan 10, Cortesen 80, Fontellasén 4, Murchanten 62. DBH, Batxiler eta Lanbide Heziketari dagokionez, Benjamin de Tudela institutuan 34 ikasle daude eta Valle del Ebron 25.

D ereduan aukera bakarra Argia Ikastola da. Bertan 230 ikasle daude 21 irakaslerekin. Horiei gehitu beharoko genizkieke AEKn ikasten ari diren 60 pertsonak eta Hizkuntza Eskolan ari diren 28 lagunak. A eta D ereduan beraz, 1.400 ikasle eta irakasle. Nire kalkuluen arabera, beste 500 bat euskaldun egongo dira Tuteran eta 60 bat gehiago inguruko herrietan. 2.000 pertsona inguru, 100.000 biztanle duen eskualdean. Nire ustez A eredu bultzatu behar da Erriberan, hori da euskararentzako sarbide oso interesgarria.



BETERRI

“Beterri peña, euskaldunen eta euskaltzaleen topagunea da Tuteran. Abesbatzak eta txistularien saioak izaten dira, edo haur txikienezko emanaldiak. Oso jator ari dira lanean, eta gainera, erreleboa lortzen ari da 25 urte inguruko gazte kuadrilla gogotsu bat sartu delako. Bazkide gehiago ezin da egin goraino dagoelako bete eta jaietan mundu guztia hara joaten da. Bitxia da ikustea nola eskuindarrak ere arazorik gabe ikurrinaren azpitik pasatzen diren tabernara sartzeko”.

EUSKARA DENONTZAT

“Hemengo jesuitei edo mojen eskoletakoei kritika egin behar diet: Nola liteke euskara ez balego bezala aritzea? Eskolatik aterako dira jakin gabe Goikoetxea zer den edo bat-bi-hiru kontatzen jakin gabe. Gutxieneko bat behar da, ez soilik A ereduan, G ereduan ere bai. Abesti batzuk, ezagutza minimo batzuk... Derrigorra beharko luke izan Nafarroa osoan. Ingurua ezagutzearen barruan sartzen da”.

Ari dira haurrak G eredutik (euskara ikasgai ere ez da) A eredurako bidea egiten?

Zabalkundea oso motel doa, egia esan. Aurten, adibidez, Corellan, 7.600 biztanleko herrian, hamar haur besterik ez dira etorri A eredura. Nafarroako Gobernuak ahalegin berezia egin beharko luke sustatzeko: idazle edo intelektuallak hitz egitera gonbidatu, pailazoak eta antzerki lanak eskaini, Nafarroako beste eskualdeetako ikastetxeetara txangoak antolatuta gure haurrek ikus dezaten toki askotan hitz egiten dela euskara Nafarroan...

Eskuin politiko eta mediatikotik euskararen aurka egiten den presioaz zer pentsatzen duzu?

UPNk ez du ikusi nahi hemen dagoe-na. Beste gauza batzuk auskalo nondik ekartzen badituzte ere berdin zaie, baina euskara ezin dute ikusi. Oso politizata dauden herritarrek sinesten dute gobernuak hizkuntza inposatzen diela. Beste batzuek, aldiz, pentsatzen dute beren seme-alabak Iruñean, Donostian edo Bilbon biziko direla agian, eta balio-garria egiten ahal zaiela euskara. Horregatik, batzuek ez dituzte haurrak eramaten A eredura, baina klase partikularrak ematen dizkiete. Hala ere, ez da erraza jendea erakartzea. Aurten, Buñuelen A eredu-a zabaltzen saiatu naiz eta ama batzuekin hitz egin ondoren ikusi dut oso lanpetuta dabilzala eta ez dutela ez gogorik ez aukerarik gauza gehiagotan sartzeko.

Presio handia jaso duzue legegaldi honetan eskuinaren aldetik?

Nik antsietatez hartzen dut periodikoa. Askotan agertu izan dira pegatinak faroletan, kaleko hormetan edo erakus-



2018ko Eguberrietan hogeitabat Olentzero egin dituzte herri eta eskoletan López Morenok.

leihoetan esanez: *“Se impone el euskera”* edo *“Defiende Navarra”*. Euskaraz idatzitako seinaleak eta kartelak amorrutik kendu dituzte. 2016an Tuterako Ikastola eraso zuten. Sartu eta pintada iraingarriak egin zituzten. Ni horretarako oso haurra naiz eta halako eraso mingarriak ikustean berehala egiten dut negar. Amorrutaren amorrutik, behin baino gehiagotan atera naiz kalera espraiekin halako mezuak ezabatzera.

Kalean, irakaskuntzaz gain, euskararen aldeko mugimendu gehiago sumatzen al da?

Zenbait ekimen interesgarri jarri dira abian. Iazko ekainean, esate baterako, lehen aldiz ospatu zen Euskararen Jaia Tuteran, Tuterako Euskararen Aldeko Plataformak antolatuta, Udalaren eta Gobernuaren laguntzaz. Lau plazatan egin

ziren haur eta helduentzako kultur eta jai giroko ekitaldiak eta oso ongi atera zen.

Beste adibide bat da Tuterako Kan-tuz taldeak aurten martxan jarri duen euskara maitatzen ikasteko ekimena. 35 lagunek osatzen duten talde honetan, euskara politikatik at kokatu eta ikuspegi ezkorra aldendu nahi dute. Abestien letrak eta azalpenak biltzen dituzten fitxak banatzen dituzte. Euskaraldiaren inguruan eta Korrikan ere, nola ez, jende askotxo mugitu zen. Bestalde, hemen ETB ikusten dugu orain eta hori oso garrantzitsua da.

Ezker Batukoa izan da alkatea legegaldi honetan. Zer moduz aritu da euskarari doakionean?

Oso ongi. Eneko Larrarte ongi ari da. Oso gertukoa da. Gainera, bere ama Gerroa Bai-n dago. ●

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)